**ERREPORTAJEA IMH SARIEN LEHEN EDIZIOKO IRABAZLEAK · GEHIGARRIA TXIKIBARREN**
**MOTZAK KORRIKA 13 DOMEKAN, 13:00ETAN, IRITSIKO DA ELGOIBARRERA**

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko apirilaren 4a/XI. urtea/441. zkia

aek rekin korrika
herri bat geroa lantzen




## Lanbide Heziketa bultzatzeko sariak

"LEHENAGO ETA ORAIN, LANARI SARI EDO ORDAIN" (esaera zaharra)

# Et

**Elgoibarko Institutua**
San Roke, 1 • Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



**ELGOIBFIREW H1STITUTUfl**

SJIJSJ

J 530 etatik aurrere (Zi1111:12111j

1111JD eten SflJ rJ ni.FUE111nnh

***16 urte betetzen dituzunean***

**DBH *bukatzen duzu***

CIN4110. asr Erimatrirwm

- Batxilergo egokiena aukeratu nahi baduzu (3 modalitate, ibilbide eskaintza zabalenarekin)
- Ziklo Formatibo egoki bat egin nahi baduzu: automozioa, administraritza eta osasuna
- Lagun berriak egin nahi badituzu (600 gazte) Profesionalen artean formatu nahi baduzu (95 irakasle)

zatoz elgoibarko institutura



**EUSKAL HERRIAK ZURE SINADURA BEHAR DU!**

**APIRILAREN 1ETIK aurrera**

**GIPUZKOAKO UDAL IDAZKARITZA GUZTIETAN eta NOTARITZETAN**

DONOSTIA. DONOSTIAKO BARRUTIA

Pedro A. Baraibar. Askatasuna, 2, 1°. Ezk.......... 9 – 16>>943431873
Aquiles Paternotre Suarez. Askatasuna, 3, 1....... 9 – 13 // 16 – 19>>943426370
Jose Carlos Arnedo Ruiz. Churruca 14, 2........... 9 —13 // 16 – 19>>943426027

IRUN. BIDASOA-OIARTZUNGO BARRUTIA

J.luis Carvajal Garcia-Pando P. ColOn, 22, 1° esk 9 -13>>943636017
Jesus Maria Sanza. Luis Mariano 10, 4° B - C.....9-14//15:30 —18:30»943633185

ORERETA. BIDASOA-01ARTZUNGO BARRUTIA

M. Remedios Agirre. K. Mitxelena Plaza,solairubitarte...........10 — 14»943 516248

ORDIZIA. ORIAKO BARRUTIA

Ignacio Pagola Villar. Lapurdi ,1 ........................................... 9 — 13>>943885650

BEASAIN. ORIAKO BARRUTIA

Fernando Rodriguez Prieto. Andra Mari 11, 2 A.............. 9:30 — 13>>943160705

ZUMARRAGA. ORIAKO BARRUTIA

Antonio Pedro Mula Soto. Iparragirre, 7, solairua...... 9-14//15:30 — 18>>943 721063

BERGARA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Roberto Rafael Oliver Puertolas. Ibargarai, 20....... 10-13 //16 —17:30»943 761073

EIBAR. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Dolores Garcia Aranaz. Bidebarrieta, 7.......................... 10 - 13,30» 943202022

AZKOITIA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Maria Gemma Fernandez Alonso. Kale Nagusia, 58,1. B ...... ..10 — 14>>943 851258

SINADUREN BILKETARI BURUZKO ARGIPENETARAKO GUNEAK
**948 21 36 01 O www.aubilgunea.org**
BANCO DE VASCONIA **0095 4638 17 0600206470**

**FAXISMOARI ESAN OZENKI**
**50.000 BAIETZ!**

# 40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



## 13 Txistua Elgoibarko Izarran

1958. urtean azaltzen dira txistua eta Elgoibar lotzen dituzten estreinako dokumentuak. Beraz, garbi dago txistua aspaldiko kontua dela gure herrian. Baina, zoritxarrez, hemen ez daukagu txistuak Elgoibarren izan duen presentzia azaltzeko tokirik, eta, besterik ezean, txistuak Elgoibarko Izarran izan duen lekua kontatuko dizuegu.

1965 urtearen bueltan hasi zen txistu hotsa Elgoibarko Izarran. Eta hasiera Antonio Azpiazu zenaren etxean kokatu behar dugu. Izan ere, Antonio zena bere etxean hasi zen txistua erakusten. Lehen ikasleak seme-alabak, ilobak eta etxe ingurukoak izan ziren. Antoniok eguerdian ematen zituen txistu eskolak, Sigmatik irten ostean. Hemendik irten zen Antton Azpiazuk, Iñaki Mujikak, Kurutz Castrillejok eta Jose Inazio Sarasuak osatzen zuten Gazte Alaiak txistu taldea.

1970ean, berriz, Elizak Ikastolari lagatako lokaletan emango dira txistu eskolak. Sasoi honetan 80-90 ikasle ere izan omen zituen Antoniok.

Antton Azpiazu semeak gogoratzen duenez, txistu eskolako ikasleen lehen aktuazioa gabon kantuen txapelketa batean izan zen, elizaren bueltan. Gerora, San Anton jaietan, Euskal Jaietan, Santa Zezilia Egunean, erregeen kabalgatan eta mezetan ere jotzen zuten txistua.

1978an Antonio Azpiazu hil zenean, 50-60 ikasle inguru zeuden txistua ikasten eta Antton Azpiazuk hartu zuen hauen ardura. Aintzane Larreategik laguntzen zion.

1984-85 ikasturtetik aurrera, berriz, txistuaren irakaskuntza Inazio Bereziartua Musikeskolaren arduran geratuko da.

1965ean hasi ziren txistu hotsak, 80ko lehen urteetan isildu ziren Elgoibarko Izarran.

*Antton Azpiazu eta Imanol Larrañaga*

# iritzial



## Badator, badator...

Karenek ezin zuen sinistu inguruan ikusten zuena. Bai, bidaia egin aurretik Peterrek esana zion, jende jatorra ezagutu zuela berak herrialde hartan, baina gauza arraro samarrak ere egiten zituztela, harri astun askoak altxatu edota bapatean errimadun kantak asmatu. Baina halakorik...

Goizaldeko bostak ziren eta lagun mordoa bildua zen mendi gaineko errepide hartan. Hotz egiten zuen, baina ez zirudien inork halakorik sentitzen zuenik. Soinean zeramatzaten peto koloretsu haiek beroak ziren, antza. Bertara joateko gonbita egin zioten lagunek txaleko bitxi horietako bat eman zioten, eta Karenek jantzi. Berotzen hasi zen segituan. Badator, badator!!! egin zuen oihu norbaitek. Orduan, antortxak piztu eta maldan gora korrika zetorren taldearekin bat egin zuten mendi gainean zeuden guztiek. Batek lekukoa hartu zuen eta gainontzekoak atzetik segika joan zitzaizkion, "Euskara, Korrika!" oihu eginaz.

Maldan gora eta behera ibiliko dira gau eta egun, mendiak eta lautadak zeharkatu, une eztiak eta garratzak biziko dituzte, oztopo ugarirekin egingo dute topo, izerdi ugari bota, baina euskaldun burugogor hauek aurrera aterako dute euren hizkuntza eta izana! - pentsatu zuen Karenek arnasestuka, korrikalari berriek euren txanda hartu zutenean.

Montse Arregi


Kexak .......... 5
MOtZ MOtZ .......... 10 1 1 0
gehigarria .......... 13
kiRolAk .......... 0 4011
aGenda .......... 24 411

# eskutitzak

2003-IV-4

## GERO BAT GAURDANIK

Oraindik ere gogoan dugu (hau bizi izateko aukera izan genuenok behintzat) andererioak KORRIKA zetorrela esatean gelan sortzen zen iskanbila. Irrikan egoten ginen KORRIKA eta AEK hitzak zituen papertxoa margotu, makilan grapatu eta arineketan kalea zeharkatzeko.

Aurtengoan ere pozik emango diogu ongietorria 13. KORRIKAri, baina orain irrikan jartzen gaituena bestelakoa da, hots, ekitaldi honekin euskararen eta AEKren alde egin daitekeena eta dezakeguna.

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (ez dakienarentzat) Euskal Herri osoan egiten den KORRIKA antolatzen du bi urtetik behin, euskararekiko kontzientzia suspertzeko eta, era berean, gau-eskola nahiz euskaltegien eguneroko lana indartu dadin dirua biltzeko asmoz.

KORRIKA 13 Maulen hasiko da apirilaren 4an eta Iruñean bukatu 13an, tartean gure herritik ere pasatuko da, 6an, igandean, hain zuzen ere, eguerdiko ordu bata aldera.

Gure hizkuntzaren etorkizuna guk geuk erabaki dezagun!

AEK Euskaltegiko EGA Taldea.

## KOLDO KAREAGA S.O.S.

Koldo Kareaga preso politiko debarrak tumore bat du aldakan. Koldo, 1981ean kartzelaratu zuten eta 1996tik beteak ditu zigorraren 3/4ak. Iazko apirilean hasi zen eskubiko aldakan mina sentitzen eta aurtengo otsailera arte "antiinflamatorioak" hartzen eduki dute, beste asistentziarik gabe. Otsailaren 26an eskaner bat egin zioten Soriako ospitalean, eta orduan ikusi zuten eskubiko aldakan tumore bat duela. Bere egoeraren larritasunagatik ere, oraindik espetxean mantentzen dute, ospitalean egon beharko litzakeenean. Txosten klinikoaren arabera "aldakan tumore bortitz eta erasokorra" du Koldok. Hala ere, proba gehiago egin ez dizkiotenez oraindik ez du diagnostikorik, eta diagnostikorik ez izateak gaitzaren tratamendua zein izan daitekeen aurreratzea zaila egiten du. Honek argi erakusten du Koldok espetxean jasan duen eta jasaten ari den mediku asistentzia falta.

Honegatik Koldo Donostiako ospitalera eraman beharko lukete lehenbailehen probak egiteko. Honez gain, preso gaixoei dagokion legez eta Zigor Kodearen 92. artikuluaren eta Kartzelako Arautegiaren 196. artikuluek diotenez, baldintzapeko askatasunean kaleratu beharko lukete. Koldo kartzelan edukitzea, legeak agintzen duenaren aurkakoa izateaz gainera, ankerkeriaren erakusgarri eta sufrimenduaren aldeko apustua da.

92. ARTIKULUA, ORAIN!!!

Elgoibarko Etxerat

# Urruzunoren
## begi ezkutua

## Hasieraz ez naiz ondo gogoratzen



11111.

Hasieraz ez naiz ondo gogoratzen. Demokrazia berak bere eragile arbuiagarri guztiak kanporatzen zituen, gorputzak kaka guztiak kanporatzen dituen naturaltasunaz. Debekuek askeago egiten gintuzten eta Poliziak zoriontsuago. Iritzi ezberdintasunen aukera irmotasunez murriztu zuten, tolerantziari gorazarre eginaz. Hiztegiaren gaurkotze osasungarriari ekin zitzaion (ekin eta buka, lastertasun eta eraginkortasun juridiko nabarmenaz), zenbait hitz desagertaraziz, elkarbizitza kutsatzeko zuten seta dela eta. Ametsek berezkoa zuten txarkeriaren aurrean zerbait egin beharraz luze jardun zuten, isolamendua ez beste irtenbiderik ez baitigu Historiak erakutsi. Iritzi publikoak, haserre, aho batez eskatu zuen eztabaida ororen deslegitimizazioa. Legeak malgutasun txalogarriaz zorroztu zituzten, zuzenbide estatuaren pisuak gaizkileak birrindu zitzan. Ohitura zaharren berreskuratzeak ekonomiari eta sistemari egiten zioten kaltea aitzaki, "kultura berdin perbertsio, txantajeari ez" hartu zuten aldarri, behin eta berriz komunikabide libreetan errepekikatzeko. Isilpeko paktu eta helburu baztertzaileak bide ziren erradikal eta bortizkeriazaleen akuilu. Demokraziak lekurik ez du eztabaida gaitzesten ez duenarentzat, zioten. Gero, ez naiz ondorengoetaz ondo gogoratzen.

Mikel Artola

BRR A,,EKARIA

Nafarroa enparantza, 2
208-70 ELGOIBAR
o 943 74 41 12
Publizitatea:
a 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topaguneacom/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN AROURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli UrigUen KOLABORATZAILEAK JaECIne Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Golzon Ardeta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno AZALEKO ESAERA ZAHARRA GdZOti Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gedu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUASS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOILIKKO IZAIRA
X111,111 8LIALILA

*Elgoiharko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutoko aldizkaria.*

kutxa
esker

1DANOBAT
111111.5 HERFAMIENTA

SSGOITI
GRUPO DANOUT

EATARTA

# Kexak



• Udaleko langile batek ondorengo kexa azaldu digu: "hiru urtetan zaindutako larrosak puskatu zizkidaten ume batzuk. Makila batekin puskatu zituzten berauen gurasuak begira zeudela, eta ez zieten ezer esan".

• Emakume elbarritu batek adicrazi digunez, kalean ez dago gurpildun aulkiekin sartu ahal den komunik: "Lehen Madalako komunetako giltza nik neukan, baina orain ez dago elbarrituentzako komunik".



* Emakume batek azaldu digunez, "martxoaren 27an ipuin kontalaria ikustera joan nintzen liburutegira umeekin eta bi minutu beranduago iritsi ginelako burdinezko atea itxita aurkitu genuen eta ezin izan ginen sartu. Umeek desiluzio handia hartu zuten".

## TXALOAK

• Elbarritu batek Udaltzain bat txalotu nahi du, Madalako bidegurutzean gurpildun aulkiarekin ez atzera, eta ez aurrera gelditu zenean, lagundu egin ziolako.



Barrak, Birrak eta Barreak





# IMH

Joan zen martxoaren 27an, 1MH Sarien 1. Edizioa ospatu zen. Ekitaldi honetan, ikasle ohi aipagarriena, 2002-03 ikasturteko ikasle bat eta fabrikazio arloko beste ikasle bat soritu ziren. Epaimahaia ikastetxeko zuzendaritzak eta irakasleek osatu zuten, aurkeztutako hautagaien profil, gorespen eta lan garapena aztertzeko. Lehenengoak IMHko eskultura bat jaso zuen, eta ikasleek, 1.200 euroko ikasketa poltsa bana eta oroigarria. Ekitaldi honen helburua, ikosleak Lanbide Heziketako Zikloetara bultzatzea da, batez ere, fabrikazio alorreko ikasketak egin diizaten. Enpresak proktiketarako ikasleak eskatzen dituzte, eta IMHk ezin dio eskaera horri aurre egin. Hau guztio kontuan izanik, IMHk ikasketa garaian edota, baita ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren Heziketa Zikloetako ei bere esker ona azaldu nahi izan die sari hauekin.




*Jose Maria Oruesagasti Elgoibarko Alkatea, Joxean Egaña IMHko zuzendaria, Jon Ormazabal Danobateko zuzendaria, Alberto Ortueta AFMko zuzendari eta IMHko lehendakaria, Jesus Mari Uncilla Etxe-Tar-eko Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Maidagan Ona-Electroerosioneko zuzendaria eta Mikel Arregi IMHko Heziketa Zikloetako arduraduna izan ziren aurkezpenean.*



*Iñaki Narbaiza berriztarrak fabrikazio arloko ikasle aipagarrienaren saria jaso zuen. Amaia Maiztegi ermuarrak ikasle ohi aipagarrienaren saria eta Jonathan Raya ermuarrak 2002/03 ikasturteko ikasle aipagarrienaren saria jaso zuen.*




*Jonathan Rayari Joxean Egaña IMHko zuzendariak eman zion saria, Amaia Maiztegiri Alberto Ortueta IMHko lehendakariak eta Iñaki Narbaizari Jose Mari Oruesagasti Elgoibarko Alkateak.*

# SARIAK

# IHASLE OHI AIPAGARRIA

Amaia Maiztegi ermuarra izan da ikasle ohi aipagarriaren alorrean saritua. Bi urteko "Mantenua eta Muntaia" modulua ikasi zuen IMHn, eta bere ikasketak bukatu bezain pronto hasi zen lanean. Kokatu enpresan egin zituen praktikak, eta bukatu baino lehen Lagun enpresatik deitu zioten. Duela 7 urte hasi zen bertan lanean, eta gaur egun, Goratu enpresan egiten du lan. Gauzak ondo joan zaizkio Amaia Maiztegiri, eta suerte apur bat ere izan duela aipatu digu. Hala ere, Amaia ez da geldirik egoteko neska. 15 urte daramatza Eibartarrak futbol taldean jokatzen, eta lan handia egin du bere bizitza aurrera atera ahal izateko. Dudarik gabe, merezitako saria jaso du.



## "Nire ibilbideagatik sari bat jasotzea oso pozgarria izan da"

**Ler suposatu du sari honek zuretzat?**

Alor pertsonalean oso harro sentitzen naiz. Egiten dudan lanagatik eta nire ibilbideagatik sari bat jasotzea oso pozgarria da. Nik uste dut, edozeini gustatuko litzaiokeela sari hau jasotzea, eta harro egoteko modukoa da. Profesionalki niretzat ez da ezer aldatu, baina oso pozik nago.

**Espero al zenuen sari hau jasotzea?**

Ez, egia esanda ez dakit zer baloratu duten sari hau emateko. Nire ibilbide profesionalari emandako saria izan dela uste dut. lkasleek eta irakasleek eman dute botoa eta ni atera naiz irabazle. Sorpresa bat izan da, baina oso pozik nago.

**Nola sartu zinen Makina Erremintaren munduan?**

Ingeniaritza ikasten hasi nintzen Eibarko Unibertsitate Laboralean, baina gauzak ez zitzaizkidan oso ondo atera, eta IMHra etorri nintzen. "Mantenua eta Muntaia" modulua egin nuen, eta gero lanean hasi nintzen.

**Neska bakarra al zinen?**

Bi neska geunden, eta nik dakidanez behintzat, lehenengoak ginen. Gerora ere, ez da beste neskarik egon modulu honetan.

**Zer da modulu honetatik gehien gustatu zitzaizuna?**

Neumatika, robotika eta automatekin zerikusia zeukaten irakasgaiak ziren nire gustukoenak.

**Ba al dauka emakumezkoentzat irteerarik modulu honek?**

Nik modulua bukatu nuenean, IMHn Txandakako Ingeniaritza ikasteko aukera zegoen. Nik lanerako kontratua sinatuta neukan, baina etxean ikasten jarraitzeko esaten zidaten. Azkenean lanean hasi nintzen eta ondo atera zitzaidan. Gaur egun kanpoko jendea ekartzen ari dira lan hau egiteko, jendea behar da, eta nik uste dut emakumezkoak modulu hau egitera animatuko balira, enpresek deituko zietela. Nik emakume guztiak animatuko lituzke.

**Modulua bukatu ostean, erraz aurkitu al zenuen lana?**

Bai, berehala hasi nintzen lanean. Beste garai batzuk ziren, eta askoz lan gehiago zegoen. 3 hilabeteko praktikak egin nituen Kokatu enpresan, eta gauza asko ikasi nituen. Praktikak bukatu baino lehen, Lagun enpresatik deitu zidaten, eta bertan hasi nintzen lanean. 7 urte pasatu dira dagoeneko, eta bertan jarraitzen dut oraindik.

**Zein da zure lana Goratu enpresan?**

Fresadorak martxan jartzea, elektronika arloa lantzen dut.

**Emakumea izanik, zein zailtasun aurkitu dituzu zure lanean?**

Lantegia ez zegoen emakume bat muntaian lanean aritzeko prestatuta. Ez zegoen emakumeentzako aldagelarik, eta denbora luzez erizaintza gelan aldatu behar izan nuen. Gaur egun, gure enpresan hori kontuan izan dute, eta obrak egin zituztenean emakumezkoentzako aldagela ere egin zuten.

**Zer moduz hartu zintuzten tailerreko gizonezkoak?**

Gizonezkoekin ondo konpondu izan naiz hasieratik, oso ondo tratatzen ninduten. Hala ere, buruan zeukaten emakumea nintzela, eta beti lan arinenak ematen zizkidaten. Taladroa hartzen nuenean harrituta gelditzen ziren, askok tailerreko tresnak erabiltzen ez nekiela uste zuten. Urte asko pasatu dira, eta gaur egun, laneko kide bat gehiago naiz beraientzat.

**Anekdotaren bat?**

Praktikak egiten ari nintzela, armairu elektrikoetan lanpara batzuk jartzeko esan zidaten. Nik zuloak egin, eta torniloekin lanparak jarri nituen, baina armairuaren barruko aldean jarri beharrean, gainean jarri nituen. Dudak dauzkazunean, galdetu egin behar da, ez da ezer pasatzen, eta denbora asko aurrezten da.

## JONATHAN RAYA DIEZ

### 2002-03K0 IKASLERIK ONENA

# "Ez dakit lagunduko didan, baina printzipioz curriculumean sartuko dut sari hau"



Adina: 30 urte.
Bizilekua: Ermua
Ikasketak: Proiektu Mekanikoen Garapenerako Goi-Mailako Heziketa likloko bigarren kurtsoko ikaslea.

Jonathan Raya ermuarrak ez zuela saria inola ere espero argitu digu, baina baita ilusio eta poztasun handiarekin jaso duela gaineratu ere. "Ikasketak amaitu eta sari bat jasotzea zoragarria izan da. Batez ere saria merezi duten beste ikasle asko daudela kontutan hartuz". Bi urteko ikasketak egin ditu eta orain praktikak egiteko enpresa bat bilatzeari ekin beharko dio, "Ia zortea dudan praktikekin. Ez dakit lagunduko didan, baina printzipioz curriculum-ean sartuko dut sariaren aipamena" aitortu digu. IMHn hasi aurretik makina Erremintaren munduan lanean ibili zela esan digu, "Informatika ezagupenak ditut, baina torno, fresadora, etab.ekin aritu nintzen lanean tailer batean. Merkatu gogorra eta zabala zegoela ikusirik, eta zerbait gehiago egin edo ikasteko ilusioa nuenez, IMHn hastea erabaki nuen. Eibarko Armeria Eskola edo Ermuko Institutua gertuago nituen, baina IMHk zuen prestigioari egin nion kasu". 1.200 euroko lan poltsarekin ez daki zer egingo duen oraindik, "nire karrera profesionala norantz bideratuko dudan ez dakit oraindik. Erabakitzen dudanean nire beharren arabera inbertituko dut diru hori: ikastaroak, materialea edo hizkuntzak ikasteko". Jonathanen iritziz ongi prestatuta aterako dira lan merkatura, baina ikasketak lanaekin uztartzea da zailena, "aukeratzen duzun adarraren arabera, kualifikazio espezifiko gehiago behar izatea gerta daiteke".



Adina: 20 urte.
Bizilekua: Berriz.
Ikasketak: Mekanizazio Bidezko Produkzioko Goi-Mailako Heziketa likloko bigarren kurtsoko ikaslea

## IÑAKI NARBAIZA NARBAIZA

### FABRIKAZIO ARLOKO IKASLERIK ONENA

# "Ekonomikoki eta moralki asko lagunduko dit sariak"

Iriaki Narbaiza pozik jaso du Fabrikazio arloko ikaslerik onenaren saria. "bi urte inguruan nahiko ondo ibili naiz klasean, gehienbat giro oso ona egon delako eta oso gustura sentitu naizelako. Aurreko urtean Arrasaten Ingeniaritza ikasten ahalegindu nintzen, baina ez zen oso ondo atera eta IMHra gauzak ondo egiteko gogoarekin joan nintzen. Maisuek sariaren berri eman zidatenean oso pozik hartu nuen. Ekonomikoki eta moralki asko lagunduko dit". Ikasleen notak eta jarrera hartu dituzte kontutan irakasleek. 1.200 euroko sariarekin argi dauka zer egin, "Seguruenik Arrasatera itzuliko naiz berriz ingeniaritza ikastera eta matrikula ordaintzeko erabiliko dut, milioi eta erdi pezetakoa baita. 20 urte dauzkat eta berriz ahalegintzea gustatuko litzaidake. IMHn bi urte egin ostean, ingeniaritza zer dan gehiago kontzientziatu naizela orain uste dut. Hala ere, kontutan hartuko dut praktiketan zer lanpostu ematen didaten eta nola moldatzen naizen, gustura nagoen, etab. Praktiketan dena oso ondo ateraz gero lanean hasiko nintzateke, baina oso zaila da hori gertatzea". Bi urteko ikasketak amaitu ostean 3 hilabetetako praktikak egin behar ditu orain Iñakik enpresaren batean. IMHn jasotako heziketak enpresa munduan eskatzen dietena egiteko behar beste prestatzen dituela erantzun digu, "Nire anaiak ingeniaritza ikasi zuen. Lanean hasi berri da eta pixka bat galduta sentitzen zela komentatzen zidan. IMHk makinetan bertan formatzeko aukera ematen du".

# Elgoibarko ikasleen %82,5ak D ereduan ikasten du

Azken urteotan D eredua, hau da, euskara hutsean ematen den eredua nagusitu da Elgoibarren. Herriko ikastetxe guztietan D eredua da nagusi, eta oso gutxi dira gaur egun gaztelaniaz ikasten dutenak. Matrikulazio kanpainaren ostean jaso ditugun datuen arabera, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta LOGSE Batxilergoan 1.417 ikasle matrikulatu dira aurten Elgoibarko ikastetxeetan, eta horietatik 1169 D ereduan matrikulatu dira.

Gipuzkoan ere, D ereduak gorakada nabarmena izan du azken urteotan. 93-94 ikasturtetik 20 puntu igo dira D ereduko matrikulazioak, eta aurten. Gipuzkoako ikasleen %76,5ak ikasiko du euskara hutsean. A ereduak ordea, beheranzko joera hartu du, eta % 2,5ak bakarrik eman du izena gaztelania hutseko ereduan.

Euskal Herriko matrikulazio datuen arabera, 17.884 ikasle matrikulatu dira 2003-04 ikasturterako. D ereduan %61,3 matrikulatu dira, B ereduan %30,1 eta A ereduan %8,6.

Ondorengo tauletan Elgoibarko ikastetxeetako datuak jaso ditugu.




| | ELGOIBARKO IKASTOLA | | | HERRI ESKOLA ETA INSTITUTUA | | | PILAR IKASTETXEA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EREDUAK | A | B | D | A | B | D | A | B | D |
| HAUR HEZKUNTZA | | | 145 | | | 146 | | | 53 |
| LEHEN HEZKUNTZA | | | 185 | | | 136 | | 115 | |
| DBH | | | 160 | | | 139 | | 98 | |
| LOGSE | | | 24 | | 35 | 181 | | | |

## Ikastolako DBH 4. mafial Liverpoolen izan dira



Urtero bezala, Elgoibar Ikastolako D.B.H.4. mailako ikasleek Livepooleko Litherland High Schooleko ikastetxearekin . elkartrukea egin dute. Elgoibarko ikasleak, martxoaren 3tik 17ra izan ziren Liverpoolen bertako hainbat familiekin elkarbizitzen, eta ingelesa ikasteaz gain, bertako kultura eta eguneroko bizimodua ezagutzeko aukera paregabea izan dute. Datorren maiatzaren 3an, Liverpooleko ikasleak etorriko dira Elgoibarrera.

## Bea Egizattal ounn Rontalaria izan zen joan zen martxoaren 27an liburutegian

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, etxeko txikienek liburutegirako bidea ikas dezaten, hainbat ekitaldi antolatu ditu Udal Liburutegiak. Joan zen martxoaren 27an "Txikitekaren" bigarren siaoa izan zen, eta oraingo honetan, Bea Egizabal ipuin kontalariak eskaini zuen emanaldia. Ume asko bildu zen liburutegian Bea Egizabalen ipuinak entzuteko, eta oso pozik atera ziren guztiak. Apirilaren 23an Liburuaren Eguna denez, lehiaketa bat antolatuko dute, eta maiatzean Peio Añorga ipuin kontalaria etorriko da Elgoibarko Udal Liburutegira.



# Datorren domekan, apirilaren Gan, eguerdiko 13:00etan pasatuko da Korrika 13 Elgoibartik

## Apirilaren 4an hasiko da Korrika Maulen eta 13an bukatuko da Iruñean

Datorren igandean, apirilaren 6an, pasatuko da Korrika 13 Elgoibartik, "AEKrekin herri bat geroa lantzen" lelopean. Ordua erabat zehaztuta ez dagoen arren, eguerdiko ordu batak alderako iritsiko dela espero da. Ibilbidea aurreko edizioko berbera da. Azkoitia aldetik etorriko da, eta elgoibartarrek Azkaraten hartuko dute lekukoa, ondoren Eibar aldera abiatzeko. Korrika 13, apirilaren 4an hasiko da Maulen, eta 2.100 km. arrapaladan igaro ondoren, apirilaren 13an Iruñean bukatuko da.

Korrikaren helburua euskararen aldeko kontzientzia suspertu eta gau eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea da. Joan zen otsailaren 27an egin zen Korrika 13ren aurkezpenean, AEK egoera ekonomiko larrian dagoela azaldu zuten, eta elgoibartar guztien partaidetza eskatu zuten. Kilometroak 300 euro balio ditu aurten, Korrika materiala eta lasterka egiteko petoak salgai daude dagoeneko, eta herrian egingo den diru bilketan eta Korrika egunean lasterka egiteko gonbitea luzatu zuten.



*Korrika 12 edizioan jende askok hartu zuen parte*

**KORRIKA 13 ELGOIBARREN**

- Azkarate: **Haizea Emakume Taldea**
- Azkarate erdiko zubipea: **Morkalko**
- Larrialdiko bidea: **Mendaroko ospitaleko langilean**
- San Antolingo autopistako zubipea: **Mendaroko In Leike**
- Karkizano gaina: **Zazpiki Irratia**
- San Pedroko tunela: **Einbiou**
- Melitongo zubia: **Errotatxo**
- Bar La Perla: **Gazte Asanblada**
- Madalako ONCE: **Ikastolako langileak**
- Iratxo Rock Kafea: Ikastola
- Lorito: Euskadiko Kutxa
- San Frantzisko iturria: **IMH, Herri Eskola, Institutua eta Haurtzaindegia**
- Bilbao Express: **Euskara Batzordea**
- Astigarraga: **Kimetz Elkartea eta Etxerat**
- Arrieta: **AEK Euskaltegia eta Egunkaria**
- Guridi: **Elgoibarko Izarra**
- Eroski: **Etxepe**
- Hertz: **Txankakua**
- Gaindu: **C.D. Elgoibar**
- Saturio: **Eibar**

# ADEGI patronalak eskaintza hobetzen ez badu, sindikatuek Metalaren Grebarekin jarraituko dute



**Joan** zen martxoaren 21ean erantzun zabala izan zuen ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deitutako metalaren grebak. Debabarreneko ELAko arduradunak azaldu digunez, langileen %87ak egin zuen greba. Sindikatuek soldata igoera, toxizidade eta arrisku plusak mantentzea, lan jardunaldiaren murrizketa, lan ziurtasuna handitzea, emakume eta gazteek jasaten duten diskriminazioa gutxitzea eta prekarietatea jaistea eskatzen dute besteak beste. Sindikatuek lau bilera egin dituzte ADEGI patronalarekin, baina momentuz ez daude gustura honek egindako eskaintzarekin. Aste honetan eskualdekako lan uzteak egin dira Gipuzkoan, eta langileek oso ondo erantzun diote sindikatuek eginiko deialdiari. Patronalarekin akordio batera iristen ez badira, sindikatuek greba deialdia egingo dute datorren apirilaren 10 eta llrako.

## Ovidio Campello izango da berriro PSE-EE Alderdi Politikoaren zerrenda burua maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetan



Alderdi Politikoak poliki-poliki beren zerrendak osatzen ari dira maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetarako. EAJ-EAk egin zuen bezalaxe, PSE-EE alderdiak ere osatu du Udal Hauteskundeetan aurkeztuko duen zerrenda, eta Ovidio Campello izango da berriz ere zerrenda burua. Bigarren hautagaia Fernando Suarez izango da, aurreko hauteskundeetan bezalaxe. Ovidio Campellok jakinarazi zuenez, zerrenda buruan elgoibartar sozialistak daude, eta hamazazpi laguneko zerrenda osatzeko eskualdeko boluntarioen laguntza izan dutela azaldu zuen.

## Hauteskunde errolda jende aurrean izango da apirilaren 7tik 14ra

Datorren maiatzaren 25ean Udalerako eta Gipuzkoako Aldundiko Batzar Nagusietarako Hauteskundeak direla eta, Elgoibarko Udalak herritarrei jakinarazi nahi die hauteskunde errolda jende aurrean izango dela datorren apirilaren 7tik 14ra bitartean. Erreklamazioak egiteko ordutegia astelehenetik larunbatera goizeko 9:00etatik 13:00etara, eta astelehenetik ostegunera arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, izango da.

## San Bartolome jaietarako ideiak aurkezteko epea ireki du Kultura Departamentuak

Gazteen eguneko kontzertua zein izango den erabakitzeko ideiak jasoko ditu Kultura Departamentuak datorren maiatzaren 10era arte. Proposamenak idatziz aurkeztu daitezke Kultura Departamentuan, 943-74 21 58 telefonora deituta, edo posta elektronikoz: cultura@elgoibar.org.

Debegesa
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea
Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba

# ENPRESAK ERATZEKO OINARRIZKO FORMAZIO IKASTAROA

### *NEGOZIO BAT ERATZEKO ASMOA DUTEN EMAKUMEEI ZUZENDUA %100EKO DIRU LAGUNTZAREKIN*

**HELBURUA:**
Enpresa berri bat edo negozio bat eratzeko proiektua duten emakumeei, proiektua aurrera eramateko dituzten aukerak aztertzea, beharrezkoak diren ezagutzak eskeintzea, eta enpresa gestionatzen erakustea.

**EDUKIAK:**
- Orientazio pertsonalizatua.
- Enpresa martxan jartzeko gestio enpresarialean formazioa.

**DOHAINIK LOR DEZAKEZU:**
- Enpresa sortu aurreko aholkularitza.
- Laguntzak eta subentzioak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurtaritza, Inem...
- Enpresa sortzeko aholkutaritza lehenengo hilabeteetan.

**IRAUPENA:**
- Banakako laguntza teknikoa: 1,5 ordu/partehartzailearekiko
- Gestio enpresarialean formazioa: 42 ordu

**LEKUA: Debegesa.** Azitaingo Industrialdea, 3 bis. 20600 Eibar

**HASIERA EGUNA:**
2003ko maiatzak 5

**INFORMAZIO GEHIAGO:** 943.820110 zenbakian.
E-posta: correo@debegesa.com

Debegesak antolatua
Europako Gizarte Fondoak finantziatua
Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Segurtasun Saila

Europa Gizarte Fondoa — Fondo Social Europeo
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

## Datorren domekan, apirliaren Ran, Korrika 13 pasatuko da Elgoibartik

# ZEIN KOLOREREKIN MARGOTUKO ZENUKE EUSKARAREN EGOERA?



### 3AUL PEREZ

25 urte, kalitate arduraduna

Orlegia, itxaropenaren kolorekoa. Jende gazte guztiak daki euskaraz, eta oinarria sendo badator, etorkizuna itxaropentsua da. Euskararen egoera duela urte batzuk baino hobea da.

### MAITE VITORES

53 urte, idazkaria

Gobernu Espainiarrak eraso handia egin dio azkenaldian euskarari, eta pena ematen dit. Etorkizuna itxaropentsu ikusten dut; ikastoletan egiten den lana garrantzitsua da.





### NURIA ESTARTA

28 urte, erosketa arduraduna

Kolore argixakin. Gazte jendiak gaur egun euskeraz gehixo hitz egiten dau, eta ez dakitxenek ere ahalegin haundixa eitxen dabe euskeria ikasteko. Interes eta erraztasun haundixauak daude.

### NEKANE ZABALA

35 urte, bankuko langilea

Grisa; zurixaua egon da. Azken bi urtietan atzerakada txiki bat euki dau. Politikoki, kanpotik eraso haundixa jasan dau. Etorkizuna gaitza ikusten dot, borroka asko daukagu eitxeko.





### IOSE FERNANDEZ

74 urte, jubilatua

Lehen baino gehiago hitz egiten da euskaraz. Ume guztiek eskolan ikasten dute, eta etorkizunean ere, apur bat indartu egingo dela uste dut.

32 urte, mekanikoa

Grisa. Politika arluan beltza dao egoeria, baina jendia borrokatzeko prest dao beti, eta hori inportantia da.





*ESKERTZA*

*2003ko martxoaren 25ean, 23 urte zituela hil zen ALAITZ ZIALTZETA BARRUTIAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



oH

13 a⁴1 1⁴V1 e

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 2. gehigarria

1111•11•11111111111•11411•1141141111•111•1111•0• MIIIISSIIIII

**Andutzpeko herritik Etxalarko borda batera ihes egin zuen 22 urteko mutil guapo honek joan zen irailean. Itziar utzi eta BASETXEAN-n bere zoria eta lehengo era zaharrean bizirauteko gaitasuna proban jarri nahi izan zituen itziartarrak eta ez zitzaion erabat gaizki irten, ez! Finalera iritsi zen Ililgo Aizpurua, eta munduan barnako bidaiak ihes egin zion arren, ez zen etxera esku hutsik itzuli. Bizitakoaren zapore gozoa, behintzat, ez dio inork kenduko!**

# Iñigo Aizpurua

## Basetxeako partaide ohia

,,u,atan LALII zinen "Basetxea"-ra?

Egixa esan kasualidadez izan zan. Lagun bat eta bixok paruan geunden ta apuntatzia pentzau gendun zeoze irabazi ezkeo premixua banatzekotan, baina programak astebete irauten zualakuan. Barruan hilabete egon bihar zala enterautakuan beste lagunak ezetz esan zuan ta ni, probatziarren, casting-ea presentau nitzan. Casting-a azteazken baten izan zan ta zapatuan barruan nauan.

"Basetxea"-tik irten eta gero autografo asko sinatu behar izan al duzu? Jendeak ezagutzen al zaitu?

Euskal Herrixa txikixa da ta batzuk ezautze naute, bai. Autografo pare bat eo siñau dittut baina kriston lotzakin.

Errepikatuko al zseilup, esperientzia?

Bai. Hasieran ezetz esaten nuan baina oin berrixak sartu dianian inbirixa eman die. Berrize sartuko nintzake baina hoi bai, jende diferentiakin.

Telebistan beste zerbait egingu al zenuke? Aurkezle edo aktore lanetan arituko al zinateke?

Egixa esan, ez da nire ilusiva telebistan lana ittia, baina tailerrian baino gustoro ingo nuke lana giro hortan, hoi bai.

Zer dago zu eta Bertare' artean?

Ba, betiko galderai betiko erantzuna emangoiot. Berta ta ni oso ondo arreglatze gea baina lagunak bakarrik gea. Dana dala, bakoitzak nahi duna pentsatziakal



**Befinito zure burua 3 bitzetan:** itziartarra, burugogorra ta neskazalia
**Bertute bat:** Nire ideiak aurrea ateatzen ie saiatzen naizela
**Akats bat:** Gehixei diskutitzetela
**Amesgaizto bat:** kontzientzia lasai dakat
**Egunsenlia ala ilunabarra?** ilunabarra
**lerua ala inlernua?** Infernua
**Nori emango zenioke gustura belarrondoko bat?** Beti kejatzen ari dan arren, ezer iten eztuan jendiai
**lehen muxua, non eta nolz?** Txitxarron, 14 urtekin
**Inolz ikasiko ez duzuna?** Ortografia
**Gainean ala aipian?** Normalian azpixan
**Ilunpean ala argitan?** Ilunpian
**Parrandarako lekurik onena?** Hondartza bat
**Ikusezina bazina?** Oso peligrosua izango nintzake
**lerk lotsatzen zaitu?** Ezer gutxik
**Ilehorlak ala beltzaranak?** Danak
**Bidaia hal, nora?** Sudamerika
**Pelikula bat:** Braveheart
**Hil eta gero?** Pakia emango deu
**Emakume bat:** Amona
**Urteko egun bat:** Enaiz fetxa zalia. Danak
**leku bat:** Itziarko Sakonetako Atxuriko halt7a

## "Basetxean berriz sartuko nintzake, baina jende berrixakin"

# IRAKASLEARI AZTERKETA

## AMALUR GARITAONANDIA

**INGELESEKO IRAKASLEA**



— **1 Inoiz egin dizuten galderarik zailena?**
Nirekin ezkondu nahi duzu?

— **2 Zer irakatsi dizute zure ikasleek?**
Beraien arazoak, gustuak...hobeto ulertzen.

— **3 Txikitan irakasleek zigortzen al zintuzten?**
Ez, normalean ez, oso ona izan nintzan.

— **4 Norbait kopiatzen harrapatuz gero?**
Nahiko ona naiz.

— **5 Zer da ikasle on bat?**
Pertsona onak, jatorrak izatea, halako ikasleekin 'enkariñau' egiten naiz

— **6 Eta irakasle on bat?**
Ikasleekin irollor ona eta irakasten duena.

— **7 Ikasle batez maiteminduko bazina?**
Nire ikasleak gaztetxoegiak dira baina bestela...ez dakit, igual aurrera eramango nuke, e?

— **8 Mila aldiz irakatsi dizuten arren inoiz ikasi ez duzuna?**
Hain burugogorra ez izaten

— **9 Anekdotaren bat?**
Nire izena ere galdu dudala, txikienek nire izena ere ez dakite, ni teacher naiz beraientzat

# NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA



**IZASKUN ARREGI**
**ama**

1. Zeren kontra edo alde egingo zenuke manifestazio **bat?**
2. Askotan egin duzun amets bat?
3. Nor ezagutu nahi zenuke?
4. Zenbat urte edukitzea gustatuko litzaizuke?
5. Zerk haserrarazten zaitu?
6. Zer izan nahi duzu/zenuen handia izatean?
7. Oparirik onena?
8. Gustatu zaizun liburu bat?
9. Zure etxea sutan balego, zer salbatuko zenuke?



**BEÑAT ARRIOLA**
**semea**

1 Gerraren kontra
2 Eztitxut ametsak gogoratzen
**3** Alberto Realekua
**4** Orain daukadan adina
**5** Umiekin, esan ta esan ta ezer ez lortziak
**6** Erizaina
1 Umiak hazi ahala dana ondo jutia
**8** Manolito laubegi
**9** Umiak

ETAren kontra 1
Aimar Olaizola ezagutzen detela 2
Thierry Henry edo Aimar Olaizola **3**
Nire aitxitxan adina, eztet lanik in nahi **4**
Amak zigortziak **5**
Txirrindularia **6**
Karbonozko bizikleta **1**
"Frai Perico y sus nuevas aventuras" **8**
Athletickeko posterra **9**

# Txiki inkeski

## Zer iritzi duzu argaltzeko dietei buruz?

### 6 urte Amaia Palacios



Dieta argaltzeko da. Nik pentsatzen dut dieta ona dela. Nire amamak joan zen urtean dieta egin zuen.

### 13 urte Mikel Galindo



Gaizki. Argal edo potolo egon ez du inporta, normal egon behar da. Fisikoak ez du axola, barrukoak baizik.

### 12 urte Sara Eniuto



Batzuk onak eta beste batzuk txarrak direla. Onak direnak argaltzen dute, baina lagatzen duzunean pisu gehiago berreskuratzen duzu.

### 11 urte Eva Jurado



Lehen jaten zenuen bezala, baina letxuga, frutak... gehiago janez, ondo dagoela; baina dieta egiteko jan gabe edo gutxiegi jaten baduzu, txarra izan daiteke.

## Zer da laztana?

### Adrian Revilla 6 urte



Laztana polita da, eta pozik zaudenean ematen da.

### Iulen Guenetxea 11 urte



Enamoratuta zaudenean ematen den ikutua.

### Maialen Arberas 6 urte



Muxua eman, maitemintzea.

### Ibal Konde 6 urte



Patxo bat ematea

# Paristik natorren

## artista bat naiz ni...



### L.H. 6. maila - Ikastola

Mikel Olaizola, Danel Mendibil, Dorleta Fernandez, Ander Zabaleta, Jon Belaustegi, Mikel Iffigez, Mikel Rumayor, Mikel Zubiaurre eta Elorri Irusta.

Azken 6alada hontan
tluzak 9aizki daude
9unk'wa itxLta
/u hasezze 9aude
nde asko laineza dalo
lanik labe
Z enok jani laitezen
Suskazazen alde

go9onak izan di74
Azken 6i uztiak
laliziazzentzako
enetan laniak
itondotza 9uztietan
4el mantxa handiak
zesti9e itsas ontziak
Zitu e77u luztiak

,u111.
Il euzitsu ta tziste 6aten
dlasi zen .9taken lezza
Amezikako asko
)oan zilen Saldaketa.
OUtin pe7tgonak hi/da
daude ta
lakentzat da 9o9ona
Saina kalete dute
Zetendatzen beten tuna.

Apiti ttiman
Mauletik hasita
Apitilazen sei An
